



## **ADIERAZPEN INSTITUZIONALA, EMAKUMEENGANAKO INDARKERIAREN AURKAKO NAZIOARTEKO EGUNEAN**

### **2019KO AZAROAREN 25A**

Gobernu Kontseiluak, 2019ko azaroaren 19an egindako ohiko bilkuran, honako erakunde adierazpen hau onartu du azaroaren 25eko Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna dela eta:

Indarkeria matxistaren biktima diren emakumeen kopurua aztertuta, 2019a ere zorigaiztoko urtea izan da. Gaurdaino, gizonezko bikoteek edo bikote ohiek 50 emakume baino gehiago erail dituzte Espainiako estatuan. Hilketak bakoitza berdintasun ezaren adierazpenik gordin eta bidegabeena da.

Nazio Batuen Batzar Orokorrak Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna izendatu zuen azaroaren 25a dela eta, emakumeenganako indarkeria oro (fisikoa, psikologikoa, sexuala, sinbolikoa...) gaitzesten dugu. Egiturazko arazoa denez gero, eta nola haren oinarria emakumeen eta gizonen arteko ezberdintasuna baiten, berdintasunaren aldeko politikak lantzen jarraituko dugu aktiboki, desberdintasunaren aurka egin eta borrokatzeko.

Argi dugu emakumeenganako indarkeriaren oinarria gizarte egituran dagoela. Eta haren aurka borrokatzen ahaleginduko gara, lurralde berdinzalea eta, ondorioz, gizarte kohesio handikoa, eraikitzeko. Alegia, pertsona orok nahi duen modukoa izateko aukera askatasuna duen lurraldean bizi nahi dugu, pertsona orok haren gaitasunak garatzeko aukera ematen duen lurraldean, pertsona orok berdintasunezko tratua izango duen lurraldean.

Araba, edozein indarkeria motaren aurka irmo agertzen dela adierazten dugu, are gehiago gizon eta emakumeen arteko desberdintasunean oinarritutako indarkerian fundatzen denean, eta Araba, Indarkeria matxistarik gabeko Lurraldea izatea nahi dugu; horregatik eta horretarako Foru Gobernutik lanean ari gara.

Lurralde kohesionatua da, pertsonen arteko harremanak errespetuan, autonomian eta berdintasunean eraiki eta sustatzen dituen.

Erakunde publikook jarraitu egin behar dugu indarkeriari aurre hartzeko eta hartaz sentsibilizatzeko ekimenak, kanpainak eta bitartekoak sustatzen eta garatzen. Hori dela eta, Arabako Foru Aldundiak hitz ematen du agintaldi honetan irmoago jardungo duela giza eskubideen urraketa larri horren aurkako borrokan.

Arabako Foru Aldundiaren aurtengo kanpaina kirol arloari buruzkoa da, eta leloa: ‘Honek ez du minik ematen – Emakumeen aurkako indarkeria gabeko kirolaren alde’. Bi kartel egin ditugu, emakume kirolarien bi irudirekin, eta kartel bakoitzean esaldi hauek agertzen dira: ‘Min ematen duena da berdin ez kobratzea’, ‘Min ematen duena da beste inor nire fisikoaz jardutea ez nire lorpenez’, ‘Min ematen duena da komunikabideetan agerikotasuna ez izatea’; ‘Min ematen duena da berdin ez kobratzea’, ‘Min ematen duena da kirolean gutxiestea emakumea izateagatik’.

Zorionez, feminismoari eta berdintasunaren aldeko eta indarkeria matxisten aurkako hainbat mugimenduri esker, lortu dugu herritar gehienek ageriko indarkeriari antzematea. Kanpaina honen bitartez, pauso bat gehiago eman nahi dugu, herritarrek beste indarkeria mota batzuei antzeman diezaieten; izan ere, sotilagoak izaten dira, baina ondorio larriak izaten dituzte. Emakume kirolarien lana aitortuz eta ikusaraziz, jarrera sexistek ez dute aurrerantzean zentzurik izango.

Arabako Foru Aldundiak puntu lila erabiltzera animatzen du gizarte osoa, emakumeen kontrako indarkeriaren gaitzespenaren sinboloa baita. Hori egitean, konpromiso aktiboa hartzen ariko gara indarkeria matxista ororen aurka, zeinaren jatorrian emakume eta gizonen berdintasun eza dagoen. Gainera, erakunde honek herritar guztiak animatzen ditu parte hartzera indarkeria horiek guztiak salatzeke egingo diren eta elkarteek, taldeek eta beste erakunde batzuek antolatatu dituzten hainbat eta hainbat ekitalditan.

Azkenik, Gobernu Kontseilu honek gizarteari, foru langileei eta erakundeei dei egiten die azaroaren 25ean, 12:00etan, Aldundiaren Jauregiko eskaileretara joan, eta 5 minutuz emakumeen aurkako indarkeria gaitzesteko egingo den elkarretaratze isilean parte har dezaten.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko azaroaren 19a.